



ONDARROAKO UDALA

## HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTA

Eguna: 2012-07-17  
Ordua: 15:00 - 16:15  
Tokia: Batzar Gela

Bertaratuak:

Argia Ituarte Arkotxa  
Iera Larrinaga  
Aitor Maruri  
Marta Bengoetxea  
Idurre Elezgarai  
Arantza Aranguren  
Gorka Lauzirika

Aztergaiak

### 1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

Etorritakoen adostasun osoaz, ontzat ematen da 2012.04.24ko akta.

### 2. UENP12ko (KAMIÑAZPI) BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA OFIZIOZ BERRAZTERTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA

Gai honi buruz, Hirigintzako zinegotziak azalpenak eman ditu, eta txosten juridikoan azaltzen diren xehetasunak ematen dira. Gai hau Udalbatzarrera eramango da eta hona eman proposamena:

*UENP 12KO (KAMIÑAZPI) BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUA OFIZIOZ BERRAZTERTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA*

*2003ko abenduaren 2an, Jesús M<sup>a</sup> Echevarria Idoeta jaunak, Hnos. Echevarria Idoeta eta Hnos. Echebarria Anacabe-ren izen eta ordezkaritzan, UENP 1.2rako Arau Subsidiarioen Uneko Aldaketa eskatu zion Ondarroako Udalari, eta horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu zuen.*

*Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanak eta Hirigintza Sailaren abenduaren 14ko 1405/2005 Foru Aginduaren bidez (BAO, 209. zk., 2005), Kamiñazpi UENP 1.2ko Uneko Aldaketa onesten da behin betiko, honako parametro hauetan:*

*"Euren azalera guztira: 2939,54 m<sup>2</sup>*



**ONDARROAKO UDALA**

Eskubidedun azalera pribatua:	2525,76 m <sup>2</sup>
Azalera eraikigarria:	11.366,67 m <sup>2</sup>
Eraikigarritasuna:	4.498 m <sup>2</sup> /m <sup>2</sup>
Etxebizitza-kopurua:	64
Aparkaleku kopurua:	137 plaza"

*Kamiñazpi, S.L.k aurkeztutako agiriaren arabera, 2007ko ekainaren 8ko Alkatetzaren Dekretu bidez (BAO, 130. zk., 2007/07/03) behin betiko onartu zen UENP 1.2ren Birpartzelazio-proiektua, urriaren 14ko 1405/2005 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartutako araei jarraiki.*

*Birpartzelazioari buruzko dokumentu horretan, honakoak agertzen dira ondorioztaturiko finka gisa:*

**- JABARI PRIBATUA**

*A partzela 1.693,25 m<sup>2</sup>*

*Markina-Xemeingo Jabetza Erregistroan Kamiñazpi, S.Lren jabetzapeko gisa inskribatua: 871 liburukia, 178 liburua, 107 orria, 10.138 finka, 1. inskripzioa.*

**- JABARI PUBLIKOA**

*B partzela 785,25 m<sup>2</sup>*

*Markina-Xemeingo Jabetza Erregistroan Ondarroako Udalaren jabetzapeko gisa inskribatua: 871 liburukia, 178 liburua, 116 orria, 10.139 finka, 1. inskripzioa.*

*C partzela 87,26 m<sup>2</sup>*

*Markina-Xemeingo Jabetza Erregistroan Ondarroako Udalaren jabetzapeko gisa inskribatua: 871 liburukia, 178 liburua, 117 orria, 10.140 finka, 1. inskripzioa.*

*D partzela 373,78 m<sup>2</sup>*

*Markina-Xemeingo Jabetza Erregistroan Ondarroako Udalaren jabetzapeko gisa inskribatua: 871 liburukia, 178 liburua, 118 orria, 10.141 finka, 1. inskripzioa.*

*E partzela, 242,24 m<sup>2</sup> ez da aipatzen, Unitate horretatik kanpo dagoelako.*

*Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salako 2. Sekzioak 2007ko abenduaren 26an 2188/2008 AUEn eman eta Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salako 5. Sekzioak 2011ko irailaren 29an 1238/2008 Kasazio Errekurtsoan berretsitako epaiaren arabera, aurreko atalean aipatu dugun Birpartzelazio Proiektua behin betiko eta Kamiñazpiko UENP 1.2ren Uneko aldarazpena onartu zuen urriaren 14ko 1405/2005 Foru Agindua indargabetu egin zen.*



## ONDARROAKO UDALA

*Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak abenduaren 15ean emandako 3970/2011 Foru Agindu bidez ebatzitako epaia betetzeko, lehen aipaturiko urriaren 14ko 1405/2005 Foru Agindua indargabetu egin zen.*

*Aurrekoaren ondorioz, UENP 1.2rako zehaztapenak 1993ko uztailaren 6an behin betiko onartutako eta indarrean dauden udal plangintzarako Arau Subsidiarioetan jasotakoak dira; haren hirigintza-araudia BAOn argitaratu zen 1997ko abuztuaren 18an. Antolamendu haren arabera, taxutu behar diren finken lagapenak honako hauek dira:*

<i>B partzela</i>	<i>879,23 m<sup>2</sup></i>
<i>D partzela</i>	<i>407,19 m<sup>2</sup></i>

*Hortaz, antolamendu berria aplikagarria denez, Birpartzelazio Proiektuak estaldura juridikoa galdu du, eta ondorioz, ez du hura gaitzen duen inolako araurik; hortaz, erabat hutsaltzat har daiteke.*

*UENP 1.2ren Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzen zuen 2007ko ekainaren 8ko Alkatezaren Dekretuaren deuseztasunari buruz Udal arkitektoak 2012ko ekainaren 22an egindako txostena eta Udal honetako zerbitzu juridikoen 2012ko ekainaren 25ean egindako txostena kontuan hartuta, eta deuseztat eman den urriaren 14ko 1405/2005 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartutako Uneko Aldarazpenean ezarritako araudiari jarraikiz.*

*Kontuan hartuta, aipatutako administrazio-egintza deuseza izan daitekeela estaldura eskaintzen zion Arau Subsidiarioen Uneko Aldarazpena epai irmo bidez deuseztatu zenez, ordenamendu juridikoa estaldura galdu duelako eta gaitzen duen inolako arauren estaldurarik ez duelako eta hura legitimatzen duen bestelako araurik ez dagoenez –hori guztia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Hirugarren Salako 5. Sekzioak 2003ko irailaren 23an emandako epaian (11019/2004 Legea), FJ X eta XIan xedatzen denari jarraikiz:*

*“...*

*HAMARGARRENA.- Azaldutako tesia urrundu egiten da nolabait zuzenbide osoz deusez adierazitako jite orokorreko xedapen baten babespean emandako administrazio-egintza irmoen eraginkortasunari gogor eusten zion gaiaren planteamendu tradizionaletik; gure ustez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 62.1 artikuluan jasotzen den zerrendak, jakina, balioa duen jite orokorreko xedapen baten babespean emandako egintzak jasotzen dituelako soilik. Izan ere, egintzaren sorburua den xedapen orokorra erabat deuseza bada, eta egintza horri estaldura ematen dion besterik ez badago, zuzenbidearen printzipio nagusiak –besteak beste, brocardos quod nullum est nullum producit effectum o quod ab initio vitiosum est no potest tractu tempore convalescere-etan jasoak– egintza balioduna izan dadin eragozten du, kalterik egin gabe zuzenbideak berak, beste printzipio batzuei men eginez –segurtasun juridikoari, fede onari edo berdintasunari buruzkoei kasu– haren eraginkortasuna jagoteari; eta hortik, hain zuzen, diogu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio*



## ONDARROAKO UDALA

*Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikuluan jasota dagoen ofiziozko berrikuspena egokia dela Lege horren beraren 62.1 artikuluan jasotako gainerako kasuetan ez ezik egintzak antolamendu juridiko ororen estaldura galdu duenean ere, beti ere, lehen aipatu dugun Legearen 106. artikuluan zehazten diren mugak kontuan hartuta. Arrazoi horregatik, hain zuzen, 1958ko Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 120.1 artikuluko zaharreko testuak nahiz indarrean dagoen 30/1992 Legearen 102.4 artikulukoak "sin perjuicio" adierazpidea erabiltzen dute, eta jarraian "subsistan" subjuntiboa –gaztelaniaz aukera bat adierazten duena– hau da, "pueden subsistir o no", eta legegileak egintza guztietan aukera hori egotea izan balu xede, bestelako adierazpideak erabiliko zituen: "subsistiendo los actos firmes dictados a su amparo" edo "subsistirán" edo "subsisten" esaterako, errealitate bat adierazten baitute, eta ez aukera hutsa.*

*HAMAIKAGARRENA.- Doktrina hori aztertzen ari garen kasura ekarrita, hauxe aurkituko dugu: Administrazioari ofizioz berrikusteko eskatu zitzaizkion egintzek, berdintasun eskubidea urratzeaz gain, ez dute estalduerarik gure antolamendu juridikoan; estaldura hori ematen zion Hiri Antolamendurako Plan Nagusia zuzenbide osoz deuseztat jo baitzen epai irmo bidez, eta ez baitago legitimatzen duen bestelako araurik; izan ere, 1992ko ekainaren 26ko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 144. artikulua eta, ondorioz, Hirigintza Araubidearen eta Lurzoruaren Balorazioaren Erreformatarako 1990eko ekainaren 25eko Legearen 31. artikulua, konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztat jo zuen Konstituzio Epaitegiak 1997ko martxoaren 20ko epai bidez.*

*Egintzek gaitzen dituen araurik ez bestelako arau-euskarririk ez dutenez, erabat deusezkat jo behar dira; hala ere, epaiak eman zirenetik ofiziozko berrikuspena eskatu zen arte igarotako denbora kontuan hartuta, hirugarrenek eskuratu ahal izan dituzten eskubideengatik edo berdintasun-arrazoiengatik, eraginari eutsi behar diote, baina inguruabar horietako bat ere ez, ez eta beste inguruabar aipagarrikerik ere ez dagokio aztertzen ari garen balizkoari.*

*Interesatuek ofiziozko berrikuspena eskatu zuten Valentziako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen 3.18 artikulua zuzenbide osoz deuseza izendatzen zuten epaiak eman zirenean, epai irmo izatera iritsi aurretik, gainera; beraz, haien babespean sortu ziren egoerak oraindik finkatu gabe zeuden, eta behar ez bezala ordaindutakoa itzulita edo behar ez bezala lagatako partzela itzularazita ere ezin da baieztatu hirugarrenen eskubideei kalte egiten zaienik; aldiz, erreklamazioa egin dutenen fede ona agerikoa da, hasieran behintzat, zuzenbidearekin bat zetorren arau batek ezarritako kargak behar bezala bete dituztelako; hortaz, ezin zitzaizen zuzenean edo zeharka aurka egiteko karga ezarri. Bestalde, ordea, egin nahi izan diren itzulketen bidez hirigintza planeamendutik ondorioztatzen diren etekinen eta kargen banaketa berdinkidearen printzipioa berrezartzen da, lurzuaren beste jabe batzuei ezarri ez zaizkien kargei egin behar izan baitiete aurre eta ez zegokien; beraz, berdintasuna ezin da eragozpena izan eskatuta berrikuspena egiteko. Arrazoi horiek guztiek ofiziozko berrikuspena ukatzeko erabakien ezeztapenari eusten diete, karga haiek ezarri zituzten administrazio-egintzak zuzenbide osoz deusezak izateaz gain ez dagoelako haien berrikuspena egiteko muga ez eragozpenik.*

*..."*



## ONDARROAKO UDALA

*Aipatutako aurrekariak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –4/1999 Legeak ordeztua– 102. artikulua ikusita, aplikagarria denaren aldetik, eta ez Legearen 62.1 artikuluan jasotzen diren kasuetarako soilik, baizik eta ordenamendu juridikoan edozein babes galdu duen administrazio-egintzen kasuan ere, Auzitegi Nagusiaren 2003ko irailaren 23ko epaian (11019/2004 Legea) xedatzen denari jarraiki.*

*Hortaz, Hirigintza Batzordeak gaurko egunean egindako batzarrean Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena luzatzen dio:*

*Lehenengoa.-* *Ofiziozko berrikuspenerako espedientea ofizioz hastea, bidezko bada, 2007ko ekainaren 8ko Alkatetzaren Dekretua (BAO, 130. zk., 2007ko uztailaren 3koa) deusez adierazteko. Dekretu haren bidez onartu zen behin betiko Kamiñazpi UENP 1.2ren Birpartzelazio Proiektua Egikaritze Unitate haren Uneko Aldarazpenean jasota zegoen hirigintza-araudiaren arabera; zeina urriaren 14ko 1405/2005 Foru Aginduaren bidez onartu zen, eta ebazpen hori epai irmo bidez deusez adierazita dago.*

*Bigarrena.-* *Berrikusteko espedientea udaleko zerbitzuek izapidetuko dute administrazio prozedura erkidearen arauetara jarraiki.*

*Hirugarrena.-* *Ondoren izan daitekeen edozein ebazpen baino lehen, eta aurreko edozein alegazioen kalterik gabe, Kamiñazpi SLri eta Caixa D'Estalvis i Pensions de Barcelonari (Bartzelonako Aurrezki eta Pentsio Kutxa) hamar eguneko epea ematen zaie erabaki hau jakinarazten den egunetik hasita, litekeen ofiziozko berrikuspenari eta aipatutako administrazio-egintza deusez adierazteari dagokienez, zuzenbidez komeni zaizkien alegazioak egiteko, eta administrazio-espedientea aztertzeke aukera izango dutela jakinarazten zaie.*

*Laugarrena.-* *Instrukzioa amaitu eta ebazpen-proposamena egindakoan, alkate andereak jardunbideak helaraziko dizkio Euskadiko Aholkularitza Juridikoko Batzordeari, bera delako administrazio honen kontsulta-organoa ebazpen hori emateari dagokionez, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 1.1., 2.1.b), 3g), 20.1.c) 2 eta 3. artikuluek xedatzen dutenari jarraiki.*

*Bosgarrena.-* *Jakinaraztea*

Arantza Aranguren galdetzen du ea urbanizazio proiektua eta lizentzia berraztertuko direla, zeren proposamenean ez dira agertzen eta zinegotziak erantzuten dio espedienteok gero honen ostean tramitatuko direla. Une honetan Arangurenek batzarra uzten du.

3. IBAIONDOKO UDAL APARKALEKUAREN BALDINTZEN PLEGUARI, KAMIÑAZPI SLAK EGINDAKO ALEGAZIOARI ERANTZUNA EMATEA.



## ONDARROAKO UDALA

Gorka Lauzirikak, Hirigintzako zerbitzuburuak, alegazioaren edukia azaldu du. Gai hau udalbatza osoak onartzeko gai bat denez, hona hemen diktamena:

*Gaia: IBAIONDOKO UDAL APARKALEKUAREN BALDINTZEN PLEGUARI, KAMIÑAZPI SLAK EGINDAKO ALEGAZIOARI ERANTZUNA EMATEA.*

*Udalbatza Osoak 2012ko apirilaren 26an eginiko batzarrean Ibaiondoko kaleko titulartasun publikoko lurpeko aparkalekuan ibilgailuentzako plazak eta trastelekuak erabilera pribatiboan edukitzeko emakida administratiboa hartu-emateko Baldintza Juridiko-Administratiboak eta Ekonomikoak arautzen duen plegua, behin behingoz, onartu zuen.*

*Plegua bideratutako espedientearekin batera, Korporazioetako Ondasunen Araudiaren 87.4 artikulua betearazteko jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean; horretarako, iragarkia argitaratu zen 2012ko maiatzaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.*

*Espedientea jendaurrean egon den bitartean, alegazio bat aurkeztu da, Kamiñazpi SLak sinatutakoa.*

*Udal zerbitzu juridikoek txosten juridikoa egingo dute alegazioari erantzuteko; espedienteak dakar haien edukia.*

*Horiekin bat etorri denez, Hirigintza Batzordeak gaurko egunean egindako batzarrean Udalbatza Osoari ondorengo akordua onar dezan proposamena luzatzen dio:*

*Lehena.- Ezetsi egingo da Kamiñazpi SLak egindako alegazioa, txosten juridikoetan agertzen diren arrazoiengatik. Kamiñazpi SLri erabakiaren oinarri izan diren txosten juridikoak bidaliko zaizkio.*

*Bigarrena.- Ibaiondoko kaleko titulartasun publikoko lurpeko aparkalekuan ibilgailuentzako plazak eta trastelekuak erabilera pribatiboan edukitzeko emakida administratiboa hartu-emateko Baldintza Juridiko-Administratiboak eta Ekonomikoak arautzen duen plegua, behin betikoz, onartzea.*

#### 4. ZALDUPEKO UDAL FUTBOL ZELAIAREN ERABERRITZEKO OBREN GAINEKO PROZEDIMENTUAREN GAINEAN BERRI/KONTU EMAN.

Hirigintzako zinegotziak azalpenak eman ditu, fase honi buruz: aurrekontua 592.991,68 €ko da, Bez barne, eta exekuzio epea 2 hilabeteko izango da, eta prozedura ireki eta presazko izapideekin tramitatuko da. Udal aurrekontuan behar den kreditu aldaketa edo izapideak egingo dira inbertsioa burutzeko finantziario egokia izan dezan.

#### 5. ESKARIAK ETA GALDERAK



## ONDARROAKO UDALA

- Zatozteko ordezkaria den Idurre Elezgarai ondorengo proposamenak egin ditu:
- Kaleetan pintada, kartelak, e.a. ikusten dira eta sarriago garbitu beharko litzateke. Baita ere, tabloi gehiago jarri behar dira, kartelak jartzeko. Proposamen zehatz bat egingo dute, herriko leku jakin batzuetan tabloiak jartzeko.
- Zeledonio Arriola eraikina zikina dago (lorategia eta lorak apurtuta, barandilla ugertuta, e.a) eta eraikinaren itxura zaindu beharko da. Gauza bera gertatzen da Dongre eraikinarekin. Herriko sarrerak gehiago zaindu beharko dira.
- Jakin nahi du nasa kaleak zer adokin mota jarriko den eta galtzadaren kota jaitsiko den. Kexa asko dagoz zoruaren irregulartasunagatik. Hirigintzako zinegotziak erantzuten dio erabakitzeke dagoela.

Horrenbestez, batzarburuak amaiera eman dio bilerari, eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut.

Gorka Lauzirika Urberuaga

O.I.

Iera larrinaga

Hirigintzako batzordeburua